

NAFARROAKO GARAPEN LANKIDETZARAKO TOKI FUNTSA, 2020

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da garapenerako lankidetzaproiektuak finantzatzea **2020rako Toki Funttsaren** kargura, garapen-bidean diren herrialdeetako (GBH) biztanleen oinarritzko premiak asetze aldera. Ondorio horretarako, funtsak 140.000 € inguru ditu aipatu ekitaldirako. Ondorio horretarako, funtsak aipatu ekitaldirako 140.000 € inguru ditu.

2. HERRIALDE ONURADUNAK

Funtseko laguntzaren onuradun izateko, herrialde batek jasota egon behar du Ekonomiako Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntzako Batzordeak (GLB) indarrean duen onuradunen zerrendan.

3. ERAKUNDEAK ETA PROIEKTU ONURADUNAK. BALDINTZAK

Deialdira bildu ahal izanen dira atxikitako oinarrietan eta deialdi honetan definitutako baldintzak betetzen dituzten garapenerako GKEak eta horien proiektuak.

4. ESKATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

GGKE eskatzaileak proiektuarekin batera (I. eranskina) honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

1. Aipatu GGKEaren dokumentazioa:
 - 1.1.- Estatutuak.
 - 1.2.- Helbide soziala.
 - 1.3.- Dagokion erregistroan erregistratuta dagoela bermatuko duen egiaztagiria.
 - 1.4.- Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
 - 1.5.- Nafarroan aurreko urtean eginiko jardueren memoria.
 - 1.6.- Gizarte Segurantzaren kotizazioetan eta zerga-betebeharretan eguneratuta dagoela ziurtatzeko agiriak.

- 1.7.- Proiektuaren kostuaren eta jasoko den diru-laguntzaren arteko aldea (zuzenekoa edo hirugarrenen bidezko finantzazioarekin) ordaintzeko konpromisoa adierazten duen deklarazioa.
2. Tokiko kontrapartearen agiriak:
- 2.1 Estatutuak.
 - 2.2 Legezko eraketaren egiaztageria, proiektua eginen den herrialdeko legeen arabera.
 - 2.3 Legezko helbide osoa.
 - 2.4 Legezko ordezkariaren egiaztageria.
 - 2.5 Azken urteetan egindako jardueren memoria, haren eskarmentua baloratzeko.
3. Proiektuaren memoria. Memoriari dokumentazio ekonomikoa gehitu beharko zaio (proformako fakturak, aurrekontu profesionalak, lurren peritazioa, eta abar) proiektua gauzatzeko behar diren material-, ekipamendu-, hornikuntza-, eraikuntza-, lur eta bestelako kostuak egiaztatze aldera.
4. Proiektua eginen den tokia zehazki erakusten duten mapak (herrialdea, eskualdea edo departamentua, probintzia eta udalerrria).
5. Dokumentazio grafikoa, teknikoa eta finantzarioa, eta proiektuaren ezaugarriez ongi jabetzeko borondatez eman nahi den bestelako dokumentazioa.

5. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

Proiektuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea 20, 3.a - Iruña) aurkeztu beharko dira, **2020ko maiatzaren 15eko 15:00ak** baino lehenago (egun hori barne).

6. BALORAZIOA ETA AUKERATZEA

Funtsak xede duenez gero ahal den eta proiektu gehienetara iristea, eta egungo ezaugarriak kontuan hartuta, funtsak ez du proiekturik aukeratuko horien finantziazio-eskaera **24.000 eurotik** gorakoa bada.

Proiektuaren zeharkako kostuek ez dute kostu horien %10 gaindituko. GKEaren eta horren zerbitzuen edo kontrapartearen administrazio-gastuak hartuko dira zeharkako kostutzat, proiektuaren formulazioaren, jarraipenaren, ebaluazioaren eta zabalpenaren ondoriozkoak. Gastu horiek proiektuaren aurrekontuaren banakapenean aparteko partida batean jasoko dira.

Halaber, proiektuen finantzaketaren %20, gutxienez, funts propioetatik, beste administrazio publiko batzuetatik nahiz beste entitate batzuetatik aterako da. Funtsak emanen duen diru-

laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, beste erakunde edo instituzio publiko nahiz pribatutatik lortutako subentzio edo laguntzekin batera, eginen den proiektuaren kostua baino handiagoa.

1. Proiektuak baloratzeko, ondorengo irizpideak hartuko dira aintzat, esleituko zaien haztapenarekin:

1.1. Eskaeraren jatorria: 13%

Proposatzen den ekimenaren jatorria zein den baloratu gogo da. Alegia, bertako biztanleek proiektuaren hautaketan eta formulazioan duten inplikazioa ikusi eta kontraparteak zonaldean duen errotzea aztertzea. Halaber, entitate publiko eta pribatuen abalak kontuan hartuko dira.

1.2. Proiektuaren eragileak: 11%

Erakunde eskatzaileen egitura, curriculum, kaudimena eta laguntza-, babes- eta ekintza-mailetan duten eginkizuna analizatzen dira. Gauza bera tokiko bazkide gisa ageri diren hegoaldeko GKEekin, oinarrizko elkarteekin, gobernu-erakundeekin eta bestelakoekin. Horretaz gain, Nafarroan eginiko sentiberatze lana ere kontuan hartuko da.

1.3. . Ekintzaren onuradunak: 12%

Aztertu beharra dago nor eta zenbatek jasoko duten proiektuaren onura, zein diren zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko baldintzak, eta nolakoa den parte-hartzea. Balorazioak aintzat hartuko du onuradunek diskriminaziorik ez pairatzea sexu, arraza nahiz bestelako arrazoiengatik. Era berean, genero irizpideen aplikazioa ere baloratuko da.

1.4. Lankidetzako lehentasun sektorialetara egokitzea: 15%

Atal honekin baloratu asmo da zein puntutaraino egokitzen den proiektua garapena eraginkorra izateko nazioarteko hainbat erakundek (NBE, Munduko Bankua, eta abar) proposatzen dituzten lankidetzako sektoreetara, eta Garapen lankidetzari buruzko 5/2001 Foru Legearen 6. artikulua lehentasunezko zatitza jotzen dituen sektoreetara: besteak beste, edateko urez hornitu eta saneamendua; oinarrizko hezkuntza; osasunaren lehen mailako arreta; haur guztiak immunizatzea; haurren hilkortasun-tasa murriztea; desnutrizio larria eta moderatua ezabatzea; eta helduen analfabetismo-tasa murriztea. Halaber, komunitate txikien garapen ekonomikoa bilatzen duten garapen produktiboko proiektuak bereziki interesgarritzat hartzen dira, baita giza baliabideetan prestatzekoak direnak ere. Bereziki baloratuko dira urez hornitzeko, oinarrizko osasuneko eta lehen hezkuntzako proiektuak. Edozein modutan ere, proiektua Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat datorrela kontuan hartuko da.

Atal honetako puntu guztiak lortuko dituzte haien helburuetan, nagusiki, biztanleentzako edateko uraren hornidura, osasuneko lehen mailako arreta eta lehen mailako hezkuntza duten proiektuek.

1.5. I. lehenetasun geografikoetara egokitzea: herrialdea: 13%

Helburua da garapen txikia duten herrialdeetan gauzatu beharreko proiektuei lehenetasuna ematea. Hori baloratzeko, herrialde onuradun bakoitzaren egungo giza garapeneko indizea hartuko da kontuan.

1.6. II. lehenetasun geografikoetara egokitzea: eskualdeak: 8%

Helburua da baloratzea zein punturaino egokitzen den proiektua eremu partikularren premietara, eremu zehatza bere ezaugarrien arabera baloratzuz: landa-eremua den, hiri ingurukoa, eta abar.

1.7. Barneko koherentzia: 15%

Asmoa da, bereziki, proiektuaren kalitatea eta formulazioa baloratzea: helburuak, jarduerak, inpaktua, testuingurua, helburuen arteko koherentzia, baliabideak eta aurrekontuaren banakapena. Halaber, proiektuaren ingurumenarekiko errespetua kontuan hartuko da.

1.8. Bideragarritasuna eta denbora-proiektzioa: 13%

Proiektua epe luzera bideragarria ote den baloratu asmo da, bereziki kanpo-laguntza kendu eta gero. Bideragarritasun hori ekonomia-, teknika- eta gizarte-mailan analizatuko da.

Proiektuek, aintzat hartuak izateko, gutxienez 70na puntu jaso beharko dituzte eta “1.7 barneko koherentzia” atalean, gutxienez, 9 puntu.

2. Proiektuak Funtseko Batzordeak baloratuko ditu, Federazioko zerbitzu teknikoek prestatutako txosten teknikoetan oinarrituta. Batzorde horretako kideak NUKFko Batzorde Betearazleak aukeratuko ditu, Batzorde Betearazleko kideen artean.

Funtseko Batzordeak aukeraketa-proposamena eta proiektuak finantzatzeko proposamena eginen dio Batzorde Betearazleari, horrek onar ditzan.

Oro har, Funtsak eskatzen diren kopuruaren %100 emanen die aukeratutako proiektuei. Nolanahi ere, kopuruak optimizatze aldera, NUKFko Batzorde Betearazleak %10 murriztu ahal izanen du, gehienez ere, proiektuen portzentajea, interesgarria izanik ere erreserban geratu den proiekturen bat finantzatzeko, betiere neurri horrekin aurrekoen bideragarritasuna arriskuan jartzen ez bada.

7. 6.- ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

NUKFko Batzorde Betearazleak diru-laguntza onartu ondoren ordainduko da diru-laguntza. Lehena, GKE onuradunak beharrezko agiriak sinatutakoan, eta bigarrena, berriz, hiru hilabete geroago.

Proiektua justifikatze aldera, GKEek proiektuaren gauzatze-mailaren gaineko txosten partzial bat aurkeztu beharko dute, horretarako landutako ereduaren arabera, 2020ko abuztuaren 31 aurretik. Halaber, urtea bukatu baino lehen, azken txosten narratiboa aurkeztuko dute, deialdi honetako II. eranskineko ereduaren arabera, baita, nork bere borondatez, edozein dokumentazio idatzi nahiz grafiko ere, proiektua gauzatu izana bermatuko duena.

Horiez gain, proiektua gauzatu izanaren txosten ekonomiko bat aurkeztu beharko dute, behar bezala justifikatua, eta horrekin batera fakturen kopia, hala badagokio.

GKE onuradunek luzapena eska dezakete agiri horiek aurkezteko, eta, eskaeran, horren arrazoiak azaldu behar dira. NUKFk baloratuko du luzapena ematen den ala ez.

8. BETEBEHARRAK

Proiektu zehatz baterako diru-laguntza jasoko duten erakundeek honako hauek bete beharko dituzte nahitaez:

1. Diru-laguntza emateko betebeharretan azaldu bezala egitea proiektua. Diru-laguntza osoa edo, hala bada, horren lehenbiziko zatia jaso eta handik hiru hilabetera hasiko da proiektua, beranduenez. Entitatea betebehar honetatik libre geldituko da baldin eta aparteko edo ezinbesteko arrazoiengatik ezinezkoa bada hastea. Arrazoi horiek justifikatu egin beharko ditu eta NUKFk onartu.
2. Proiektua gauzatu ezin bada edo diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete ezin badira, jasotako dirua itzultzea, edo dena justifikatu ezin bada, justifikatu ezina itzultzea.
3. Aipatutako bukaerako eta bitarteko txostena aurkeztea.
4. NUKFri baimena eta laguntza ematea proiektuaren garapenaren berri emateko, Nafarroako jendea garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatze aldera.
5. Adieraztea diru laguntza nork emana den diruz lagundutako proiektuaren publizitate eta zabalkunde lan guztietan. Hedatze-lana idatzia edo grafikoa baldin bada, "Nafarroako Toki Entitateak" izeneko logotipoa erabiliko da (horren diseinua NUKFren bulegoan lor daiteke); diruz lagundutako erakundearen logotipoaren tamaina berean eta berdin ikusteko moduan agertuko da aipatu logotipoa. Halaber, berriaz jakinaraziko zaio tokian tokiko kontraparte edo bazkideari diru-laguntza horren jatorria.
6. Diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako inguruabar, betekizun eta baldintzetan aldaketarik izanez gero, horien berri NUKFri ematea eta horretarako baimena eskatzea.

9. DATU PERTSONALAK BABESTEA.

Datuak babesteko araudian xedatutakoarekin bat, adierazten dugu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa dela datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna; datuen tratamendua egiten da lankidetzaren proiektuen deialdia ebazteko, zeinak helburu baitu garapen bidean dauden herrialdeetako herritarren oinarrizko beharrak asetzea 2020ko Toki Funttsaren kargura. Halaber, jakinarazten dugu argitaratuko direla onesten diren proiektuen datuak Federazioak bidezkoztat jotzen dituen baliabideen bidez.

Nafarroako Udal eta kontzejuen Federazioak zilegitasuna du aurkeztu zaion dokumentazioko datu pertsonalen tratamendua egiteko, proiektua aurkeztuz adostasuna ematen baita.

Adierazitako helburua betetzeko behar bezainbeste eutsiko zaie datuei, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunik duen bitartean gordeko dira.

Interesdunek eskubidea dute datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, baita, zenbait kasutan, beren datuen tratamendua mugatu edo aurkaratzeko ere, eta, horretarako, hala jakinarazi behar diote Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari (Tutera kalea, 20, 3. solairua. 31003, Iruña). Halaber, jakinarazten dizugu zilegi duzula erreklamazioa aurkeztea Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, idazki baten bidez (Jorge Juan kalea, 6, 28001, Madril) edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).